



# consumo2000

www.eke-fce.com

Editada por la Federación de Consumidores de Euskadi  
Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa argitaratua

10

## Aurkibidea

Zarataz inguratuta



1



Planetari ertsiz

3



Segurtasun neurri berriak Europako aireportuetan

5

Afinsaren konkurtso prozedura



8



Etxebizitzei buruzko aholkularitza

9

## Zarataz inguratuta

Trafikoak sortzen du kutsadura akustikoaren %80, eta horrek ondorio kaltegarriak ditu gure osasunean

Zaratak gero eta buruko min eta molestia gehiago sortzen ditu. Trafikoaren hazkundera, etxebizitzaren eraikuntza etengabea eta jarduera industrialak dira kutsadura akustikoaren arrazoi nagusiak. Osasunaren Mundu Erakundearen (OME) arabera, gomendatutako zarataren muga 65 dezibeliokoa da, baina, Euskadin, errealitatea askoz ere zaratatsuagoa da. Gauzak horrela, gero eta elkarte eta ekimen gehiago ari dira sortzen eraso akustiko horien aurka borroka egiteko.

Zarataren gaian errudun bat aipatu behar bada, errudun horrek gorpilak ditu. Ibilgailuen trafikoak kutsadura akustikoaren lehenengo faktorea da, eta ondoren dator jarduera industrialak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak egindako Zaraten Maparen arabera. Auto, kamioi eta motorrek Euskadiko zarataren %80 sortzen dute.

Gainera, Euskadiko ehun bat udalerriotan, egunero sufritzen dute trafikoaren zarataren kutsadura, baimendutako gehieneko zarata gain-

dituz. Bertako herritarrek 70 dezibeliotik gorako mailak jasan behar izaten dituzte, trafiko askoko errepideen ondoan egoteagatik. Arazo hori konpontzeko, trafikoaren zarata murriztuko luketen 70 panel akustiko instalatu beharko lirerateke, beste hainbeste leku zaratatsutan.

### Legeak

Autonomia Erkidego bakoitzak bere legedia dauka arlo honetan. Euskadiren kasuan, kutsadura akustikoari buruzko zenbait lege daude: Ingurumena Babesteko 3/1988 Lege Orokorra, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei aplikatu beharreko arau teknikoari buruzko 171/1985 Dekretua, eta ostalaritzako establezimenduen itxierari buruzko Dekretua.

Zarataren kontra ari diren elkarte gehienek arabera, legedia sakabatu eta ez-nahikoa da oraindik, eta, kasu askotan, bete ere ez da egiten, arazo horri aurre egiteko administrazioen azterketa eta ekintza nahikorik ez dagoelako.

Eusko Jaurlaritzaz gain, udalek

(Jarraitu)

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, MERKATARITZA  
ETA TURISMO SAILA  
Merkataritza eta Kontsumoko Sailburuordetza  
Kontsumo Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,  
COMERCIO Y TURISMO  
Viceconsejería de Comercio y Consumo  
Dirección de Consumo



Federación de Consumidores de Euskadi

Juan de Ajuriaguerra 9 - 7º  
48009 BILBAO  
Tel: 94 424 92 10. Fax: 94 424 64 20  
e-mail: [eke@arrakis.es](mailto:eke@arrakis.es)


eskumena dute kutsadura akustikoaren kontrako arau propioak garatzeko eta zaraten mapa propioa egiteko, dezibelio larregiko puntuak aurkitzeko.

Zenbait udalek neurriak hartu dituzte jada, bertako bizilagunei zarata gogaikarriak saihesteko. Hala egin dute, esate baterako, kaleko edanaren gaiarekin. Izan ere, horrek gehiegizko zarata sortzen du gauetz, eta gazteen kaleko topalekuetatik hurbil bizi diren auzokideentzat molestia handia da, beste zenbait molestiaren artean.

Hori da Bilbon gertatzen dena: bertan, kutsadura akustikoagatik salaketek gora egin dute, urtean 375 salaketa jasotzeraino.

Hain zuzen ere, Bilboko kaleetan orain dela gutxi debekatu da kaleko edana, kaltetutako bizilagun ugarien pozerako.

Baina zarata ez dugu soilik kaleetan pairatzen. Euskaldunen herena kexatu egiten da euren etxebizitzetara kanpoko zarata asko sart-



zen delako. Batez ere, Euskadiko hiriburuetan gertatzen da hori.

Bilbotarren %38, donostiarren %30,5 eta gasteiztarren %28,9 kexatu egiten da etxean jasan behar izaten duten gehiegizko zarata dela eta.

Izan ere, etxebizitza ugarritan ikaragarritzko zarata pairatzen da. Eta hori, trafikoagatik, hurbileko taberna eta jatetxeengatik, inguruko zaratengatik eta igogailuaren motorra leku desegokian egoteagatik.

## Dezibelio gehiegi

45 dezibelioetatik behera, zarata ez da gogaikarria. 55 eta 65 dezibelio artean, deserosotasun akustikoa dago. Kutsadura akustikoa eta osasunarentzako kalteak 65 dezibelioetatik gora agertzen dira. Maila hori aise gainditzen dute egunero entzuten ditugun soinu askok. Ibilgailuen trafikoak 85 dezibelioko zarata sortzen du, auto baten klaxonak 90ekoa, autobus baten bozinak 100ekoa, isilgailurik gabeko motozikleta batek 115ekoa, eta hiri gainetik pasatzen den hegazkin batek 130ekoa.

Aireportu batetik hurbil bizi denak aukera gutxi ditu. Leiho intsonorizatuak instala ditzake edo, azken muturrera helduta, etxebizitzaz alda daiteke. Izan ere, aireportu baten kokapena aldatzea ez dago bizilagunen esku.

Baina, jarrera batzuekin, zarata handiegiak saihestu ditzakegu: esate baterako, autoaren klaxona ez joz eta bizilagun, taberna edo bestelakoek sortutako gehiegizko zarata salatuz.

## Osasun kontua

Egunero zarata larregi pairatzeak kalte handia egiten dio gure osasunari. Kutsadura akustikoak gaixotasun kardiobaskularra, gorreria, ondoeza, estresa, loaren gorabeherak, komunikazio eta elkarbizitzarako zailtasunak, jokaera oldarkorrak... sortzen ditu. Zerrenda nahikoa luzea da, eta gai hau serio hartu behar da.

Hori dela eta, gero eta elkarte gehiagok egiten dio aurre zaratari. Horietako bat Adecavi da: Ekologistak Martxan elkartearen barruan sortu zen, eta Euskadiko herri eta hirietako kutsadura akustikoaren aurka egiten du lan. Elkarteak telefono bidezko doako aholkularitza zerbitzua eskaintzen du, soinu erasoei aurre egiteko.

Interneten ere, zarataren kontra lan egiteko informazioa lor daiteke. Esate baterako, Zarataren Aurkako Elkartearen Estatuko Federazioaren web orrian ([www.ruidos.org](http://www.ruidos.org)) eta Zarataren Aurkako Juristen Elkartearen atarian ([www.juristas-ruidos.org](http://www.juristas-ruidos.org)).

Ez dago zertan soinu erasoak jasan behar, eta elkarteek zarata salatzerantz animatzen gaituzte. Hurbileko taberna baten aurka egiteko, udaltzaingoarengana joan daiteke. Zarata neurtuko dute eta, baimendutako muga gainditzen bada, zigor-txosten bati hasiera emango diote. Baina kutsadura akustikoaren kasuak udalean, Arartekoaren aurrean edo Ingurumenaren Fiskaltzan ere sala daitezke.

# Planetari eutsiz

**Agenda 21 delakoak ingurumena mantentzeko tokiko ildoak zehazten ditu, energia alter-**

**natiboen kontsumo eta erabilera arduratsuen bitartez .**

Planetaren biziraupena politikoen agendan dago, baina ez soilik euren eskuetan. Baliabide naturalak mantentzea denon lana da. Agenda 21 programak (Euskadiko 200 udalek baino gehiagok jarraitzen duten Nazio Batuen iraunkortasun programa) markatzen du egin beharreko bidea, bioaniztasunaren, kontsumo arduratsuen eta energia berriztagarrien alde eginez.

14 urte joan dira 1992an Rio de Janeiron egindako Lurraren Gailurrean Agenda 21 terminoa hartu zenetik. Gure planetaren biziraupena bermatzeko munduko planik handiena da. NBEren programa hori ez da asmo hutsetan geratzen, eta, bete egingo dela bermatzeko, udalen esku uzten du tokiko Agenda 21 egitea.

Euskadin, 200 udal baino gehiago ari dira parte hartzen Udalsarea 21 Iraunkortasunaren aldeko Euskadiko Udalen Sarean. Sare hau Eskolako Agenda 21 delakoarekin osatzen da. Azken programa horrek, udalekin batera, ingurumenari eta irizpide iraunkorrei buruzko heziketa darama hezkuntza zentroetara.

Pentsatu globalki eta jardun lokalki leloak laburbiltzen du ekimen honen espiritua. Agenda 21 programak 40 atal ditu, eta bost puntutan laburbildu daitezke: kontsumo iraunkorra; ur, lur eta airearen kontserbazioa; lurraldearen oreka, bioaniztasuna eta hondakinen murrizketa.

## Berotegi-efektua

Euskadik ez ditu behar bezala betetzen

programa global honen helburuak, duen produkzio industrial handiagatik eta errepideetako trafikoagatik, horiek baitira bertako kutsadura-faktore nagusiak.

Erregai fosilak (gasolina, petrolio eta ikatza) dira gas-isurketen arduradun nagusiak. Izan ere, erretzerakoan, karbono dioxidoa isurtzen dute atmosferara, eta horrek sortzen du berotegi efektu arriskutsua.

1990etik, Euskadiko Co2 isurketak Espainian eta Europar Batasunean baino %28 gehiago hazi dira.

Gainera, hori baino betebeharrak gehiago ditugu Agenda 21 programan: jarraitzen dugu gehiegi kontsumitzen eta ekosistema kargatzen, errepidekoa ez den garraioa sustatzeko estrategia serioa falta da eta ez da behar beste aurrera egin hondakinen murrizketan. Euskadin, trafikoak eta kontsumo energetikoak haziz jarraitzen dute, eta horrek urrundu egiten gaitu garapen iraunkorretik. Hori lortzeko, "produkzio eta kontsumo eredu aldaketa zorrotzak" behar dira, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailaren arabera.

## Hondakinen murrizketa

Berotegi efektuari aurre egiteko, hondakin fosilak murriztea egundoko erronka da. Gure energia-iturriak modu eraginkoragoan produzitu eta erabili behar ditugu, ingurumena hobeto kontserbatzeko.

Gauza bera gertatzen da elektrizitatearekin. Berez, ez du kutsatzen, baina energia elektrikoa lortzeko erabiltzen



(Jarraitu) ►

diren formek, berriz, bai. Elektrizitate gehiena zentral termikoetatik dator (zentral termikoek berokuntza globala eta euri azidoa sortzen dute), bai eta zentral nuklearretatik ere (oso kutsakorak diren eta milioika urteko toxikotasuna duten hondakin erradioaktiboak sortzen dituzte). Gasa, aldiz, ez da hain kutsagarria.

Zientzialari eta ikertzaileek energia alternatiboak bilatzen dituzten eta hondakin arriskutsu horiek desagerrarazteko teknikak ikertzen dituzten bitartean, energia aurreztu eta kontsumo iraunkorraren trena hartu behar da.

Gomendioetako batzuk oso sinpleak dira: gure etxeetako hondakinak birziklatzea, garraio publikoa erabiltzea, autoan gasolina aurreztea (behar ez denean ez azeleratuz), aire egokitua neurritz erabiltzea, ez bidaiatzea leihatilak zabalik daudela, edo etxeko hormak silikatozko pinturekin margotzea (pintura plastikoekin margotu beharrean, askoz ere kutsagarriagoak baitira). Petrolioaren eratorri guztiak kutsagarriak dira.

### Energia garbiak

Kontsumo arduratsuko praktika horiekin batera, energia alternatiboek esperantza-izpi bat ematen dute ingurumenaren arazoan. Energia tradizionalen aurrean, energia berriztagarriak tresna garbia dira eta, horien bitartez, berogailua, ur beroa eta aire egokitua lortzen ditugu, natura errespetatuz.

Energia berriztagarri horiek, gainera, ohikoak baino merkeagoak dira, eta abantaila handi bat dute: ez dira agortzen. Ezagunenak eguzki energia termikoa eta energia fotovoltaikoa dira.

Eguzkia energia-igorlerik nagusiena da. Eguzki energiaren erabilera epe ertainean da errentagarria, eta instalazioa denbora laburrean amortizatzen da. Energia fotovoltaikoak eguzki panelak erabiltzen ditu eraikinak elektrifikatzeko, ura ponpatzeko, seinaleak argitzeko edo argiztapenak jartzeko. Aldiz, eguzki energia termikoa ur beroa eta berokuntza sortzeko erabiltzen da.

Energia eolikoa (haizearen indarra aprobetxatzen du elektrizitatea sortzeko) eta geotermikoa

(lurraren barruan sortzen dena) erregai fosil kutsagarriak ordeztuko dauden beste alternatiba bi dira, baina, oraindik, eguzki energia eta energia eolikoa munduko energia produkzioaren %2 baino ez dira.

Gaur egungo erregaiak ordeztuko, hidrogeno bidez ibiliko diren ibilgailuen prototipoak ari dira garatzen. Etorkizun handiko erregai-pila bat izango dute, eta ihes-hoditik ur-lurrina baino ez da irtengo. Badaude auto mota horien prototipoak.

Biomasaren erabilera (energia-iturri gisa) beste aukera bat da, bai eta hondakindegietatik eta abereen hondakinetatik lortutako metano gasa, azukrearen alkohol hartzitua edo sojatik ateratako olio erregaiak ere, besteak beste.

Planetaren baliabide naturalak ahalik eta gehien ustiatzeak prezioa dauka. Baliabideak agortu egiten dira, eta planetak ezin du gure kontsumo-erritmoa jasan; ohitura sozial eta praktika industrial batzuek gure ingurunea mehatxatzen dute. Horrelakorik ez gertatzea denon esku dago.



# Segurtasun neurri berriak Europako aireportuetan

Lehergai likidoen mehatxuari aurre egiteko, Europar Batasunak (EB) segurtasun neurri berriak hartu ditu. Neurri horien ondorioz, Europako erkidegoko aireportuetako segurtasun kontrolak pasatzean bidaiariak alboan eraman ditzaketen likidoen edo antzeko substantzien kopurua murriztu egin da. Neurri horiek EBko aireportuetatik irtetzen diren bidaiari guztiei aplikatuko zaizkie, nora doazen kontuan izan gabe.

Hala ere, neurri berri horiek ez dute mugarik jartzen enbarkatzeko txartela erakusten den kontroleko puntutik harago eskuratu daitezkeen likido edo substantzien inguruan edo EBko airelinea batek operatutako hegazkin batean eskuratu daitezkeenen inguruan.

Neurri horiek 2006ko azaroaren 6tik aurrera aplikatzen dira Europar Batasuneko eta Norvegia, Islandia eta Suitzako aireportu guztietan.

## Ze arau berri dago?

### Ekipajea egiten duzun bitartean

Eskuko ekipajea likido kopuru txikiak baino ezin dira eraman. Likido horiek ontzi txikitik eraman behar dira, eta ontziok, gehienez ere, 100 ml-ko edukiera indibiduala izan behar dute. Bidaiari bakoitzak plastikozko poltsa garden batean sartu behar ditu ontzi horiek. Poltsak autoitxierarako aukera izan behar du eta ezin du litro bat baino gehiagoko edukiera izan (gutxi gorabehera, 20 x 20 cm-koa izango da), segurtasun kontrolatan produktu horiek hobeto aztertu ahal izan dezaten.

Bidaiariak bidaia hasi baino lehen eskuratu beharko dituzte poltsa horiek.

### Aireportuan hauxe egin behar duzu:

- Likido guztiak aipatutako poltsaren barruan aurkeztu behar dituzu, eskuko ekipajetik aparte, eta segurtasun kontrolatan horretarako egokitutako erretiluan jarri behar duzu, segurtasuneko langileek azter dezaten.
- Jaka edota berokia kendu eta erretiluan jarri behar dituzu. Jantzi horiek banaka aztertu behar dira, zu ere aztertzen zaituzten bitartean.
- Ordenagailu eramangarria edo antzeko neurriko beste edozein gailu elektronikoko euren zorrotatik atera eta erretiluan jarri behar dituzu, segurtasun kontrolatan aparte azter ditzaten gailua eta zorroa.

## Neurri berrien arabera, honakoak hartzen dira likidotzat:



Ura eta beste edari batzuk, zopak, xarabeak



Kremak, lozioak eta olioak, hortzetako pasta barne



Lurrinak



Gelak; esate baterako, dutxarako gelak edo xanpuak



Edukiontzi presurizatuen edukiak, barne hartuta bizarra egiteko bitsa, beste bits batzuk eta desodoranteak



Aerosolak

Antzeko trinkotasuna duen beste edozein gauza

## Zer ez da aldatu?

### Honakoak egin ditzakezu oraindik:

- Baimendutako produktuak eraman ditzakezu (aurreko atalean aipatutako likidoak eta substantziak barne) fakturatzan dituzun maletetan; neurri berriek eskuko ekipajearen baimenak ez dute eraginik.
  - Eskuko ekipajearen botikak eta umeentzako jakiak eraman ditzakezu, bidaian erabiltzeko. Horretarako, segurtasun kontrolatan aparte aurkeztu beharko dituzu, baina ez poltsa gardenaren barruan.
  - Likidoak (esate baterako, edariak eta lurrinak) erosi ditzakezu, EBko aireportuetako segurtasun kontrola baino haragoko edozein dendatan edo Europako airelinea baten operatutako hegazkin baten barruan.
- Produktu horiek poltsa itxietan saltzen badituzte, ez ireki bidaia amaitu arte. EBko beste aireportu batean jarraituko baduzu bidaia, itxitako poltsarik ez ireki Europako erkidegoko azken aireportutik irten arte.

Likido horiek guztiak lehen aipatutako plastikozko poltsa-ko likido kopuruei gehitzen zaizkie.

**Edozein zalantza baduzu, mesedez, jar zaitez harremanetan zure aire-konpainiarekin edo bidaia-agente batekin, bidaia egin baino lehen.**



## Galderarik ohikoenak

### Ze hegaldi eta herrialdetan aplikatzen da araudi berria?

Europar Batasuneko edozein aireportutatik irteten diren hegaldi guztietan, helmuga edo konpainia zein den kontuan izan gabe. Era berean, Europar Batasuneko aireporturen batean hegazkinez aldatu behar duten bidaiari guztiei ere aplikatuko zaie.

Europar Batasuna osatzen duten herrialde guztietan aplikatuko da: Alemania, Austria, Belgika, Txekiar Errepublika, Txipre, Danimarka, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estonia, Finlandia, Frantzia, Grezia, Holanda, Hungaria, Irlanda, Italia, Letonia, Lituania, Luxenburgo, Malta, Polonia, Portugal, Erresuma Batua eta Suedian.

Gainera, herrialde hauetan ere aplikatuko da: Norvegia, Islandia eta Suitzan.

### Likidoak eraman ditzaket sotoko ekipajearen?

Bai. Aipatutako mugak eskuko ekipajerako dira soilik. Beraz, fakturatutako ekipajearen eraman ahal izango duzu dena. Gomendagarria da, ahal den heinean, maleta fakturatzea.

### Salbuespenak:

#### Likidoren bat eraman daiteke?

Bidaiariak likidoak eraman ahal izango dituzte eskuko ekipajearen, baldin eta 100 ml-ko edukiera baino gehiago ez duten ontzi indibidualetan sartzen badituzte eta, era berean, ontzi horiek litro 1 baino gehiagoko edukiera ez duen plastikozko poltsa garden batean sartzen badituzte. Poltsa horiek, gainera, ireki eta ixteko sistema bat izan behar dute. Eduki horiek modu erosoan sartu beharko dira poltsan, eta poltsa betea oso-osorik itxi ahal izan beharko da.

#### Botikei ere eragiten die?

Eskuko ekipajearen botikak eraman daitezke, bidaian erabiltzeko. Horretarako, segurtasun kontrolatan aparte aurkeztu beharko dira, baina ez poltsa gardenaren barruan.

Gomendagarria da, ahal den heinean, bidaiariak alboan eramatea errezeta medikoa.

**(Jarraitu)**

**Umeentzako janariak eskuko ekipajearen eraman daitezke?**

Eskuko ekipajearen umeentzako janariak eraman daitezke, bidaiaren erabiltzeko. Horretarako, segurtasun kontroletan aparte aurkeztu beharko dira, baina ez poltsa gardenaren barruan.

Segurtasun kontrolean benetakotasun proba bat eskatu ahal izango da.

**Gaixotasuna dela eta, hegaldian dieta bereziren bat behar badut, eskuko ekipajearen eraman dezaket?**

Beharrezan medikoak direla-eta hegaldian bidaiariak elikagai bereziak behar baditu (esate baterako, zeliakoen kasuan), eskuko ekipajearen eraman ahal izango ditu.

Gomendagarria da, ahal den heinean, bidaiariak alboan eramatea errezeta medikoa.

**Poltsa etxetik ekar dezaket?**

Atzerapenak eta bidaiariaren kolapsoak saihesteko, poltsa etxetik ekarri behar da prest. Modu horretan, poltsa atera eta erretiluan jarri besterik ez duzu egin beharko.

**Zenbat poltsa ekar ditzaket?**

Bat, enbarkatzeko txartela duen bidaiari bakoitzeko.

**Hegazkin aldaketak:****Europar Batasuna ez den herrialde batetik banator eta Europar Batasuneko den herrialde batean aldatu behar badut hegazkinez, likidoak ekar ditzaket nire eskuko ekipajearen?**

Europako lehenengo aireportura heltzean, eskuko ekipajearen eraman nahi dituzun likido guztiak 100 ml baino gehiagokoak ez diren ontzietan joan beharko dira. Eta, era berean, ontzi horiek litro bateko edukiera duen poltsa garden batean joan beharko dira. Salbuetsita daude botikak, umeentzako janariak eta dieta bereziak. Modu horretan aurkezten ez den guztia bertan behera utzi beharko da, aireportuko segurtasun gunean sartu baino lehen.

Aurreko guztia dela eta, gomendagarria da, ahal den heinean, likido guztiak sotoko ekipajearen sartzea eta fakturatzeari.

**Aireportuko taberna, jatetxe eta makinetan likidoak erosi ditzaket, hegazkinean kontsumitzeko?**

Bereiztu egin behar da, likidoak segurtasun kontrolaren aurretik edo ostean erosi ote diren.

Segurtasun kontrolaren aurretik: Saltoki horietan erositako likidoak ezin izango dira segurtasun kontroletik pasatu eta lehenago kontsumitu beharko dira.

Segurtasun kontrolaren ostean: Saltoki horietan erositako likidoak hegazkinera eraman ahal izango dira, baina hegaldian kontsumitu beharko dira.

**Kutxa bildutako likido edo gelen bat erosten badut, kutxa hori erretiratu behar dut?**

Ez. Kutxa dagoen bezala gorde behar duzu.

**Hegazkinez aldatu behar dut Espainiako aireportu batean, baina Europar Batasuneko ez den herrialde batetik banator. Zer gertatzen da kasu honetan, jatorrizko herrialdean likido edo gelen bat erosi badut?**

Europar Batasuneko segurtasun kontroletan ez da onartuko EBkoak ez diren herrialdeetan erositako eta eskuko ekipajearen sartutako produktu likidorik edo gelik. Produktu horiek sotoko ekipajearen fakturatu beharko dira, jatorrizko aireportuan.

**Badago kopuru-mugarik segurtasun kontrola baino haragoko dendetan erositako produktu likidoetan edo geletan?**

Ez, ez dago mugarik erosketa horietan.

**Zer gertatzen da Europar Batasuneko ez den aireporturen batean hegazkinez aldatzen badut eta produktu likidoren bat edo gelen bat erosi badut EBko aireportu batean, segurtasun kontrola pasatu eta gero?**

Kasu horretan, ez da aparteko segurtasun neurririk hartu beharko.

Baimendu gabeak	Baimenduak
Makillaje likidoa	Ezpainetako margoa
Kremak	Gazta solidoa
Gurina	Makillajea hautsean
Baselina	Koloretea
Maskara likidoa (Rimmela)	Talko-hautsak
Aerosolak/Roll-on desodoranteak	
Gela, xanpua	
Bustitzeko gazta	

# AFINSAREN konkurtso prozedura

## Afinsaren kontratuak aurrezki-kontratuak ziren eta dira

Sektore desberdinetatik (bakoitzak bere interesak ditu), Forum eta Afinsaren jardunak “merkataritzako salerosketa” izaera duela aipatu da. Iruzurraren arduradun zuzenak (Forum eta Afinsako zuzendari ohiek), Gobernuak (Kontsumo Ministerioaren bitartez) eta oposizioak diote kaltetuek ez zituztela aurrezkiak inbertitu, ezpada zigiluak erosi zituztela. Hori, gezur hutsa izateaz gain, kaltetuen interesentzat arriskutsua da. Ze bitxia, gainera, hain interes desberdineko jendeak bat egitea gai honen inguruan. ADICAE elkarteak 2002tik esan duenez (eta Ogasunak, Ustelkeriaren Kontrako Fiskaltzak, zigor eta merkataritza arloko epaileek, Diputatuen Kongresuko eztabaidetako zenbait kidek, Baloreen Merkatuko Batzorde Nazionalaren presidentek berak eta finantzei buruzko aditu gehienek babestu izan dutenez), jardun hori aurrezki publikoan oinarritzen zen, eta, beraz, horrela arautu behar izan zen edo, bestela, iruzurra izanik, horrela eman behar zitzaion amaiera auziari. Kaltetuen dirua defendatzeko modu bakarra sinatzen zuten kontratuaren izaera finantzarioa da.

## Araudi desegokia. Kontrolaren eta ikuskapenaren defizita

Estatuaren akatsik larriena sektore honentzako araudi bat ezartzea izan zen. Izan ere, ondo aztertuz gero, iruzurra zen hasiera-hasieratik. 2003an, ADICAE elkarteak egindako salaketan ostean, berandu, presaka eta parlamentuko eztabaidarik gabe, ontzat eman zen Laugarren Xedapen Gehigarria, zeinak jardun honen aurrezki finantzarioaren izaera modu arbitrarioan ukatzen baitzuen. Horren ondorioa da ez zela legez ezarri enpresa horien kontabilitatea eta arlo finantzarioa kontrolatzeko mekanismorik eta gainbegiratzeko ere ez zitzaizela eskatu horretarako eskumena eta gaitasuna duten organismoek: Balore Merkatuen Batzorde Nazionalari, Espainiako Bankuari eta Aseguruaren Zuzendaritza Nagusiari, alegia.

Erakunde hauen eta kontabilitatea zein aipatzen ari garen jarduna ikuskatzeko gaitasuna duen beste edozein erakunderen lanak berehala aurkituko zukeen iruzurra, eta ikusten ari garen neurri sozialeko hondamendia saihestuko zatekeen. Izan ere, ez da ahaztu behar katean gero eta bezero gehiago ari zirela sartzen, eta horrexek eusten ziola iruzurrari.



## Ogasun sailak uko egin behar die bere pribilegioei eta biktimekin zuzen jokatu behar du

Zerga Agentziek (Gizarte Segurantzak eta aldeko hipotekak dituzten banku erakundeek bezala) lehiaketa prozeduran lehentasunezko kobrantza-eskubidea dute, kaltetutako aurreztaileen aurretik. EKE-ADICAE plataformak uste du, eta hala eskatuko du, Zerga Agentziak uko egin behar diola lehentasunezko kobrantzarako pribilegio horri. Badago horretarako oinarri legala, eta talde juridikoak lanean ari dira jada. Jendearen artetik aurrezkiak lortzen zuten erakunde batzuei eragiten dien lehiaketa prozeduran, ezin da horrelako pribilegiarik egon, horrek gehiago baztertuko bailituzke kaltetuak. Ogasun Sailarekin kaltetutakoen eta Forum eta Afinsaren zerga-obligazioei buruzko eztabaida kontu legala da, eta espero dugu zuzentasunez argituko dela zigor eta konkurtso arloko epaitegietan, kaltetutako bezeroen artean banatu beharreko ondarearen alde.

## Konkurtso prozedura abian

Afinsaren administrazio judiziala gutunak bidaltzen ari da kaltetuei, konpainia horren artxibo informatikoetan agertzen den zorrari buruzko informazioa emanez. Kredituen berri administratzaileei modu formalean emateko epea azaroaren 16an amaitzen da.

Administratzaileen gutunean eskatzen den dokumentazio originalaren eskaera saihestu egin daiteke, formula hau jarritz: “dokumentazio originalari dagokionez, konkurtso-administrazioaren esku dauden Afinsaren artxiboak izendatzen ditut”.



# Etxebizitzetxei buruzko aholkularitza

## Elkargoak erantzun

Bidali zure aholku-eskaerak honako helbidera: Euskadiko Kontsumitzaileen Elkargoa. Juan de Ajuriagerra kalea, 9-7. 48009 Bilbao edo posta elektronikoaren bidez, beste honetara: [eke@arrakis.es](mailto:eke@arrakis.es)

### Komunitatearen kuota etxebizitza baten maizterrari eska dakioko?

Komunitatearen kuota ordaintzeko obligazioa jabearena da soil-soilik, Jabetza Horizontalaren Legean ezarritakoaren arabera.

Lege horren arabera, gastu orokorrak ordaintzeko obligazioa dago, eraikina behar bezala mantentzeko eta pertsona bakarrak ordaintzekoak ez diren zerbitzu, zama eta erantzukizunei aurre egiteko, izenburuan ezarritako partaidetza-kuotaren arabera edo modu berezian ezarritakoaren arabera. Ondorioz, erreklamazioak etxebizitzaren jabeari egin behar zaizkio, albo batera utziz kontratuaren arabera itunak. Izan ere, itun horiek ez dute jabea ordainketetatik salbuesten.



### Ze kopuru eman behar da fidantza gisa, errentamendu kontratua formalizatzeko?

Hiri Errentamenduen Legeak dioenari jarraituz, kontratua egiten denean, fidantza eskatzea eta metalikoan ematea derrigorrezkoa izango da. Etxebizitzako alokairuaren kasuan, hilabeteko errenta ordaindu beharko da; eta etxebizitza ez den erabileraren kasuan, bi hilabeteko errenta.

Kontratuaren lehenengo bost urteetan, fidantza ez da eguneratuko. Baina errentamendua luzatzen den bakoitzean, alokatzaileak fidantza handitzeko edo maizterrak errenta gutxitzeko eskatu ahal izango dute, indarrean dagoen errentaren hilabete baten edo biren parera heldu arte, dagokion moduan, luzatutako denborari dagokionez.

Alokairuaren amaieran maizterrari itzuli behar zaion fidantza metalikoaren saldoak legezko interesa sortuko du, giltzak eman eta, hilabete pasatuta, itzulketa hori ez bada egin.



### Eraikineko zenbait postontzi hondatu egin dira. Nork ordaindu behar du konponketa edo aldaketa?

Gune komunean dauden gauza guztiek (postontziak, atezain automatikoa, apaingarriak eta abar) maila bera daukate, hau da, ezaugarri komuntzat hartzen dira. Ondorioz, postontziak korrespondentzia pribaturako erabiltzen badira ere, elementu komunak dira. Izan ere, pribatibotzat hartuko balira, jabe bakoitzak bere gustuko materialekin eta abarrekin aldatu edo konpondu ahal izango litzuke, eta hori atariaren estetikaren kalterako izango litzateke. Hori dela eta, konponketa eta mantnimendua komunitateari dagokio, baldin eta batzar nagusian ez bada erabakitzen postontziak beste modu batez aldatu edo konpontzea.

**Pertsona berak izan dezake idazkari eta administratzaile kargua?**

Jabetza Horizontalaren Legeak aukera hori ematen du, bai eta kargu biak modu independentean izendatzeko aukera ere. Administratzaile kargua eta, hala dagokionean, Idazkari-administratzaile kargua edozein jabe bete ahal izango du, bai eta funtzio horiek betetzeko gaitasun profesional nahikoa eta lege onartutako gaitasuna duten pertsona fisikoek ere. Korporazio eta beste pertsona juridiko batzuek ere bete ahal izango dituzte, araudi juridikoan ezarritako terminoei jarraituz. Komunitatearen estatutuek ez badute kontrakorik esaten, gobernu organoak urtebeteko eperako izendatuko dira.

**Errentamenduaren hitzezko kontratuaren eraginkortasuna.**

Aldeen arteko kontratuak ez dute zertan idatzizkoak izan. Nahikoa da aldeen arteko konpromisoa egiaztatzea. Errentamenduaren kontratuari dagokionez, etxebizitza okupatzeagatiko ordainketa egiteak eta kontratua onartzeak errentamendu kontratua existitzen dela esan nahi du.

Hiri Errentamenduen Legeak, 9. artikuluan, alokairua bost urtera artekoa izateko aukera ematen du, maizterrak hala erabakitzen badu. Hori horrela izango da, alokatzaileari ez badio adierazten ez duela berritzeko asmorik.

Hori dela eta, aipatutako epea igaro arte (hau da, bost urte), alokatzaileak ezin du kaleratze-ekintza gauzatu, baina maizterrak ez badu errenta ordaindu, orduan bai gauzatu dezake ekintza hori.

**Maizterrak komunitatearen ordainagiriak ordaindu baditu, kontratu amaieran aukera dago saldo positiboa erreklamatzeko?**

Komunitatearen kuotak ordaindu izanak ez dio eskumenik ematen eta ez du maizterra legitimatzen saldoak eskatzeko (kasu honetan, saldo positiboak) kontratu amaieran. Kuoten ordainketak etxebizitzaren jabearekiko akordioa dakar, ez ekintza edo eskumen bereziak lortzea.

Hori dela eta, uste dugu ez duela inongo eskubiderik komunitateari erreklamatzeko (etxebizitza horretatik gainontze-koek besteko zenbatekoa jaso du), kontratuan hitzartutakoa ordaintzera mugatu bada. Edozelan ere, jabeari erreklamatu ahal izango lioke, hark ateratzen baitu saldo positiboaren etekina.

**Zein da estatutuak eta barne erregimeneko araudia onartzeko quoruma?**

Egin behar den lehenengo gauza desberdintzea da. Izan ere, Jabetza Horizontalaren Legearen arabera, Estatutuak aho batez onartu behar dira, baina egin nahi dena zerbitzuen funtzionamendurako arauak onartzea bada (hau da, Barne Erregimeneko Araudia onartu nahi bada), orduan nahikoa da gehiengoa, administrazio hutseko gaia delako eta jabe guztiak daudelako horren menpe, administrazioko akordioetarako aurreikusitako moduan ez badira aldatzen.

**Kontserbazio lanak. Lan horien erregulazioa, Jabetza Horizontalaren Legean.**

Komunitatearen obligazioa izango da eraikina eta bertako zerbitzuak behar bezala mantendu eta kontserbatzeko obrak egitea, baldintza egokiak bete ditzan egituran, iragazgaitasunean eta segurtasunean.

Eskumena duten agintariek emandako aginduen betearazpena justifikaziorik gabe atzeratzen dituzten edo agindu horien aurka egiten duten jabeek modu indibidualean erantzungo diete administrazio bidetik jar daitezkeen zigorrei.

Egin beharreko obren izaerari buruzko eztabaidak izanez gero, Jabeakideen Batzordeak hartuko du erabakia. Gainera, interesdunek arbitrajea edo txosten tekniko eskatu ahal izango dute, Legeak ezarritako terminoetan.

Etxebizitza edo lokala kontserbazio lanen betearazpenetik sortutako gastuen ordainketaren menpe egongo da, Jabetza Horizontalaren Legearen 9. artikuluan ezarritako terminoen arabera.